

# Batzen gaituzten hariak.



**ALDERDI EGUNA 2025**  
2025.09.28. Igandea. Forondan

**IRAIA PINEDOREN HITZALDIA**  
**Foronda, 2025.09.28**

Egun on Foronda! Hemen gaude! Eusko gaztedi! Euskadiren etorkizuna!

Aurten alderdiak ez du edozein urteurren ospatzen. 130 urteko historia, konpromisoa, militantzia eta aberrigintza ospatzen du. Luzaroan iraun duen herrialdea, zer eta batzen gaituzten harietarako esker eta gure aurrekoen ahalegin nekazinari esker.

Amore ematen ez duen istorio baten seme-alabak gara. Gure kausa ez zen, ez gerran, ez erbestean, ez errepresioarekin, ezta terrorismoaren basakeriarekin ere desagertu. Agirrerengan, Leizaolarengan, eta gure erakundeetako zein alderdiko ordezkari guzti-guztiengan eutsi zion gaur egun arte. KATEA EZ DA ETEN! Hemen dago jeltzale gazteria, erreleboa hartzeko prest, ez harmailetatik begiratzeko!

Gaur egun lan handiaren emaitza den autogobernu zabala daukagu, BAI. BAINA, EZ DA NAHIKOA. "Euzkotarron aberria Euzkadi da" lemapean jaio ginenok gaur ozen eta argi aldarrikatzen dugu Euskadiren etorkizuna Euskadik erabaki behar duela, askatasunez, baimenik eskatu gabe. Horregatik, behar dugu estatus politiko berri bat. Bagarena bezala aitortzen gaituen estatusa: munduan ahots propioa eta erabakitze gaitasuna duen herria. 7 lurraldez osaturiko herria!

Arabarra izanda, ezin dut Trebiñu ahaztu eta aldarrikatu: Trebiñu Araba da!!! Zalantzarik gabe esaten dugu. Egunero sentitzen dugu.

Euskara... euskara da gure hizkuntza, gure nortasuna, gure bihotza, gure etorkizuna. Eta ez gara isilduko gure hizkuntzak aurrera egitea oztopatzen duten sententzien aurrean. Egikideok ozen eta argi salatu nahi ditugu gaurkoan. Izan ere, euskararen kontrakoak ez ezik, euskaldunon eskubideen aurkakoak baitira. Ez dugu onartuko euskaldunon hizkuntza-eskubideak urratzerik!

Gazteak, abertzaleak, euskaltzaleak eta feministak ere bagara. Horrexegatik da "Emakume Abertzale Batza"-k hasi zuen borroka feminista gure jardunaren eta asmoen zutabe eta bidelagun. Julene Urzelai, Karmele Errazti, Elbira Zipitria... ESKERRIK ASKO! Zuek bezain argi dugu ezin dela aberri libererik izan emakume libererik gabe.

Euskal gazteak garen aldetik, munduaren minaren aurrean ez gara isiltzen. Gaur Ukrainara eta Palestinara gaude begira, sufritzen ari diren bi herri, justizia aldarrikatzen

# Batzen gaituzten hariak.



**ALDERDI EGUNA 2025**  
2025.09.28. Igandea. Forondan

dutenak. Badakigu zer den existitzeko eskubidea bera ere ukatua ikustea. Eta horregatik, gure elkartasuna ezin zintzoagoa da. Ukraina, Palestina: Euzko Gaztedi zuekin!

Egunero gure alde egiten dutenen lana aitortu nahi dut. Gure kargu instituzional eta politiko guztiena, bai, baina baita Euskadiko segurtasuna bermatzen dutenena ere: Euskal polizia. Azkenaldian, GKS eta Ernai bezalako mugimenduek gure polizia seinalatu eta beren aurkako erasoak eragin dituzte. Duela 40 urte, 1985ean, EGIko gazteek “Ertzaintza Aurrera” leloa zuen pankarta zeramaten. Eta gaur, berriro ere, argi eta garbi esaten dugu: Ertzaintza Aurrera.

Era berean, GKS-k Ernaik eta eskuin muturreko mugimenduek diskurtso hutsez betetzen dituzue plazak, “behar da” “egin behar da” behin eta berriz errepikatuz... baina ez duzue ezer egiten! Euskadi ez da oihu hutsen gainean eraikitzen, ez da kale-borroken bidez indartzen. Istorio gutxiago eta proposamen gehiago. Aitzakia gutxiago eta konpromiso handiagoa Euskadirekin!

Gazte jeltzaleok gara aberriaren etorkizuna. Ez gaude hemen itzaroteko, ekiteko baizik. Lehendakari, Aitor, EGIrekin kontatu!

Argi ditugu gure eskaerak eta defendatzen duguna: lehenik eta behin, etxebizitza eskuragarria. EAJ lanean ari da: gazteentzako aukerak sortzen, lehen etxea erosi ahal izateko abalak eskainiz, etxebizitza berriak sustatuz... Hor dago benetako konpromisoa. Beste batzuek hitz handiak dituzte, guk, berriz, neurriak eta emaitzak. Etxebizitzaz gain, enplegu duina, euskara, berdintasuna, euskal nortasun nazionala eta gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea defendatzen ditugu. Baina HEMEN, Euskadin!

130 urteko historiaren bermea du alderdiak. 130 urteko konpromisoa da proba. Eta hemen gaude Gazte jeltzaleok Euskadiko historiaren hurrengo orrialdeak idazten jarraitzeko. Egikideok, geu gara etorkizunaren jabe.

Batzen gaituzten hariak ez dira hautsiko. Batzen gaituzten hariak gogorarazten digute nor garen, nondik gatozen eta norantz goazen. Jarrai dezagun ehuntzen!!

Gora Euzko Gaztedi!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi askatuta!